



Gurean


berdintasuna



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
10. zbk. 2020 Azaroa

GENERO IKUSPEGIKO AURREKONTUAK





GENERO IKUSPEGIKO AURREKONTUAK: ZEHARKAKOTASUNA POLITIKA PUBLIKOETAN TXERTATZEKO APUSTUA

Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea izan da, seguruenik, azken hamarkadako aldaketarik handiena aurrekontu teknikan. Azken bi hamarkadetan genero ezberdintasunen inguruan gizartearen erradiografia hobetu eta berdintasunerako irtenbide ekonomikoak bilatzen laguntzen ari den prozedura da.

Iturria: Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañagari egindako elkarrizketa

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2021. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Aurrekontu Orokorren proiektua onartuko du abenduan. Horretarako Ekonomia eta Ogasun Saila genero eragina aztertzeke formularioak eta txostenak jasotzen ari da sail, ente eta erakunde autonomoetatik, aurrekontu programekin batera. Txosten horietan zehazten dira soldata arrakala murrizteko, berdintasunaren alde lan egiteko eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ekimenak.

“Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeak diruaren arrastoari jarraitzea esan nahi du eta dirua benetan zertarako erabiltzen den, zeri ematen zaion balioa ikustea” azaldu du Jubetok. Praktika hori, ziur aski, azken hamarkadako aldaketarik handiena da aurrekontu teknikan. “Denboran ekimen berria izan arren, politika ekonomikoari buruzko eztabaida feministetan gehien errepikatzen den gaietako bat bihurtu da”, zehaztu du.

1995ean Beijingen egindako Nazio Batuen Emakumei buruzko IV. Nazioarteko Biltzarrean ikusi zuten “genero zeharkakotasuna politika publiko guztietan txertatzeko beharra”. Testuinguru horretan, Genero Ikuspegiko Aurrekontuak (GIA) sortu ziren politika ekonomikoaren lehen-tasunak adierazten dituen tresna gisa. “

Guk uste dugu, politikan, aurrekontu publikoetan erakusten dela egingo duzuna, hau da, dirua non ipintzen duzun da gakoa. Horregatik uste dugu genero ikuspegiko aurrekontuak tresna egokiak izan daitezkeela zeharkakotasuna praktikan jartzeko.” adie- razi du Mertxe Larrañaga UPV/EHUko ekonomia irakasleak.

Lanaren banaketa sexuala

Genero ikuspegiko aurrekontuei buruz hitz egiten denean planteatzen den arazoetako bat da ez dagoela horiek ezartzeko metodologia bakar bat, eta administrazio ezberdinen egitura eta eskumenetara egokitu behar direla. Jubetok eta Larrañagak 2015etik Eusko Jaurlaritzari aholku ematen diote zeregin horietan. “Uste sendo batetik abiatzen gara: politika publikoak ez dira generoaren aldetik neutroak izaten. Ahalegin espliziturik egiten ez bada, dagoen horri eustea da joera: familia egiturak, lan merkaturia eta abar” azaldu du Larrañagak.

Izan ere, genero ikuspegiko aurrekontuen helburuetako bat da politika publikoa koherenteagoa izatea administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egindako asmoen adierazpenekin. “Gaur egun emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun sozioekonomiko guztien atzean dagoen arazorik garrantzitsuenetako bat lanaren banaketa sexuala da. Politika ekonomikoek ezberdintasunak errepikatu dituzte, politika horiek beste ikuspuntu batetik moldatzen ez badira.” gogoratu du Larrañagak.

Etxeko eta zaintza lan gehienak oraindik ere emakumeek egiten dituzte, ezer kobratu gabe edo lan baldintza eskasetan. “Aurrekontu publikoek, oro har, gutxiesten dute emakumeek makroekonomiari egi-

ten dioten ekarpena, ordaintzen ez den ekonomia aintzat hartzen ez dutelako, hau da, emakumeek gehienbat egiten dituzten zaintza lanak” azpimarratu du Jubetok. Ildo horretatik, Larrañagak honako hau gomen datzen du “ pertsonen bizi-kalitatean eragina duten aurrekontu-partidak lehenes- tea. Hau da, ongizate estatuaren oinarrian dauden birbanaketa politiketan jarri behar da arreta. Politika sozialenek mesede egiten diete zainketen ekonomian parte hartzen duten sektoreei” .

Zaintza lanen balioa

EUSTATEk egindako azken hogeitau urteetako Etxeko Lanen Kontu-Sateliteen datuak aztertzean ikus daiteke “ordaindu gabeko etxeko lanen balioaren zatia Barne Produktu Gordinean (BPG) jaitsi egin dela 1993ko %46,2tik, 2013ko %32,4ra”. Hala ere, datu interesgarri bat da urte horietako minimoa, %29, 2008an ezarri zela eta berriro hazi zela denboraldi horren amaieran. Horrek agerian uzten du “etxeko ekoinpenta handitu egiten dela krisi garaietan, merkatu ekonomiatik ordaindu gabeko etxeko ekonomiara baliabideen transferentzia bat ematen delako”, EUSTATEko txostenaren arabera.

Alde horretatik Malen Etxea emakume etorkinen elkartek duela gutxi salatu du Eusko Legebiltzarrean “Euskadin zaintza lanei buruzko politika publikoak, Zahar-egoitzak, Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuak udalen bidez ematen dituen arreta-orduak eta Eguneko Zentroak kudeatzeaz arduratzen direla. Bien bitartean emakume etorkinek egiten dituzten zaintza lanen unibertsoa ez da kontuan hartzen, ez dituzte langile funtsezkotzat hartzen bizi dugun salbuespenezko egoeraren pisurik handiena haiek jasatzen duten

arren. Emakume horiek barneko langileak dira, eguneko 24 orduetan lan egiteko prest egon behar dira, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata baino handiagoak ez diren soldatak kobratzen dituzte eta ez dute atsedendirik izaten". "Emakume etorkinek etxeetan egiten dituzten zaintza lanen balioa aitortu eta menpekotasuna duten pertsonen zerbitzura egongo den sistema unibertsal eta publiko baten barruan sartu behar dituzte, kalitateko zainketek kalitateko lanpostuak eskatzen baitituzte" azpimarratu dute.

Bizitza erdigunean jartzeak esan nahi du, besteak beste, bizitzaren jasagarritasunari politikoki arreta ematea eta horretarako erakunde publikoetatik menpekotasunari egoki helduko zaiola bermatzea. Zaintza lanen merkatuaren zama, haien egoera sozioekonomikogatik zaugarriak diren emakumeen gainean erortzen uztea ez da bidezkoa. "Gizarte-politikak politika pu-



blikoaren erdian egon beharko luke. Bizia erdigunean jartzea politika feministen eta ekologisten batasuna da eta hausnarketa egitera behartzen gaitu: merkataritza-eremuan arreta jarri eta biziaren jasan-

garritasunaren beharrak albo batera uzten ditugu. Krisian ikusi dugu eta orain berre-raikitze planak egiten saiatzen ari garenez, non dago eztabaida hori?" dio Jubetok.

“Subversión feminista de la economía, aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida”

Amaia Pérez-Orozco

Ekonomia genero ikuspegitik zalantzan jarri eta eztabaidatzeko ezinbesteko lana da. 2007an izandako finantza krisiaren ondorioz sistema kapitalistak nekez gaindituko dituen kontraesanak agerian geratu ziren. Hala ere hurbilagotik begiraturaz gero “biziaren jasagarritasun krisia” deritzona agertzen da. Amaia Pérez-Orozcoren liburuak *Traficantes de Sueños* argitaletxeak argitaratua, gogoeta egiten du bizi baldintzak hondatzen dituen krisiari buruz eta bizitza duinari buruz.

“Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeak diruaren arrastoari jarraitzea esan nahi du eta dirua benetan zertarako erabiltzen den, zeri ematen zaion balioa ikustea”

“ Etxeko ekoizpena handitu egiten da krisi garaietan, merkatu ekonomiatik ordaindu gabeko etxeko ekonomiara baliabideen transferentzia bat ematen delako”

Interesgarria / De Interés

LIBURUA



Aitaren Etxea

Maskulinitatea eraikitzeko eta transmititzeko moduez eta orokorrean generoak emakume eta gizonen bizitzetan duen eragin itzelaz ari da Karmele Jaioren eleberria. Baita familietan sortzen diren isiltasun esanguratsuez ere. Bere nobela anbiziotsu eta ausartena burutu du Jaiok, lurralde ezezagun batean barneratuz eta bertatik arrakastaz itzuliz.

IKUSI

LIBURUA



Amek Ez Dute

Sorkuntza esaten diogu artista baten lanaren emaitzari; sorkuntza da halaber haur bat mundura ekartzean ama batek egiten duena. Sormenaren bi alderdi horiek eta bien arteko harremanak arakatu ditu Katixa Agirrek bere bigarren nobela honetan, irrikaz irensten den fikzioa erakiz eta aldi berean gogoan luzaroen geratzen diren hausnarketekin aberastuz.

IKUSI

BIDEOA



Yo Me Ocupo

¿Cuántos ayudadores conocés? La planificación y la gestión de los quehaceres son una carga mental que asumen principalmente las mujeres. Ser Ayudador no alcanza. Esperar a que te lo pidan tampoco.

La próxima vez dí #YoMeOcupo
FundacionAvonArg

IKUSI

Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Legearen aldaketa onartu du, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako herri-ituna ahalbidetuko duena.

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak agerraldia egin zuten Gobernu Kontseiluaren osteko ohiko prentsaurrekoan, Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarekin batera. Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak jakitera eman zuenez, Gobernu Kontseiluak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren bezala aldatzeko lege-proiektua onartu du. Sailburuak azaldu zuenez, legearen aldaketa honen bidez, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako politikak indartu nahi dira, eta, aldi berean, politika horiek testuinguru arauemaile eta sozial berriaren ondoriozko behar berrietara egokitu. "Proposamenean nazioarteko araudiaren aurrerapenak, gizarte-kontzientzia, gaiari buruzko ikaskuntzak, lanaren ebaluazioak eta etengabeko egokitzapenak eta politika publikoen koordinazioa, talde feministen aldarrikapenak eta biziraun duten emakumeen eskaerak integratzen saiatu gara. Eta Legearen alderdirik azpimarragarrietako bat mantentzen eta indartzen saiatu gara: emakumeen aurkako indarkeria genero-desberdintasunaren adierazpen goren gisa kokatzea, eta berdintasunean aurrera egitea indarkeria desagerrarazteko", adierazi zuen.

[Aurreproiektu Legea](#)



“ Me dijo “o tus amigas o yo”...
Era abrir yo la boca y todo parecerle mal.
Y vas haciéndote cada vez más pequeña...”

si escuchas,

LA VERÁS

SOLO UNA SOCIEDAD ATENTA PUEDE DETECTAR LA VIOLENCIA MÁS OCULTA

900 840 111 24 h
DEITU, ENTZUTOKO PREST GAUDE
LLAMA, TE ESCUCHARÉMOS



Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las Mujeres



La campaña de Emakunde visibiliza la violencia más oculta que sufren las mujeres mayores.

Esta campaña, impulsada por Emakunde y el departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, no es una campaña al uso, ya que es fruto de un proceso que Emakunde ha llevado a cabo con mujeres de entre 55 y 79 años, que han aportado testimonios reales de la violencia vivida durante muchos años. Las propias mujeres son las protagonistas de la campaña y de la elección del mensaje que se centra en acabar con su invisibilidad y con una llamada a la sociedad para que esté atenta a situaciones como las que ellas han vivido.

La campaña interpela directamente a la sociedad, tratando de encontrar en ella una mayor empatía a través del lema “Si la escuchas, la verás. Solo una sociedad atenta puede detectar la violencia más oculta”.

La iniciativa pretende sensibilizar a la sociedad sobre la violencia contra las mujeres mayores por su “especial vulnerabilidad” y por la invisibilidad de la que son víctimas.

BA AL DAKIZU?

Beldur barik 2020ko lan irabazleek genero rolak eta estereotipoen haustura, emakumeen ahalduntzea eta gorputzen aniztasuna gaiak jorratu dituzte.

Hauek izan dira lan irabazleak:

- **Lehenengo kategoria (12 eta 13 urte bitartekoei zuzenduta):**
 - o Lan irabazlea: [Martxoak 8](#)
 - o Aipamen berezia: [“Eman buelta zure ipuinari”](#)
 - **Bigarren kategoria (14 eta 18 urte bitartekoei zuzenduta):**
 - o Lan irabazlea: [‘Lerro berrien artean’](#)
 - o Aipamen berezia: [“¿Por qué?”](#)
 - **Hirugarren kategoria (19 eta 26 urte bitartekoei zuzenduta):**
 - o Lan irabazlea: [Oldartu/Rebelate’](#)
 - o Aipamen berezia: [‘Gure Misioa’](#)
 - **Azkenik, aurtengo edizioan bi sari gehiago egon dira:**
 - o partehartzearen saria: [‘Oldartu/Rebelate’](#)
 - o ikus-entzunezko lanik onena: [‘Errebelazioa’](#)
- Informazio guztia [hemen](#)**

YOLANDA JUBETO

EKONOMIALARI FEMINISTA



“Administrazioen erronka nagusia da gizarte, ingurumen eta giza zaintza lanen ekonomia politika publikoen erdigunean jartzea”

Yolanda Jubeto Ruiz Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko irakaslea da duela 20 urte inguru. Bere ibilbidearen hasierako garaietatik maitasunez gogoratzen du Ronda Sharp aditu australiarraren artikulua. Artikuluak aurrekontu publikoetan ikuspegi feminista txertatzearen garrantzia azaltzen zuen eta Yolanda Jubeto hain hunkituta geratu zen bere tesia kontu publikoak ikuspuntu feministatik aztertzea bideratu zuela. Orduz geroztik gai horrekin lotutako proiektu askotan hartu du parte Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta beste hainbat autonomia erkidegotan ere. 2015 urtetik Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko aholkularitza ematen aritu da.

Pandemiak sortutako egoera dela eta EAEko 2021eko aurrekontu orokorrak erronka handia izango dira.

Zergatik uste duzu politika ekonomikoak eragin desberdina duela gizonengan eta emakumeengan?

Esan liteke lanaren egungo banaketa sexuala dela arazo horren muina. Emakumeok, oraindik ere, gizonek baino askoz denbora gehiago ematen dugu zaintza lanetan eta ordaindu gabeko jardueretan. Zaintzaren ardura, batez ere, emakumeengan dago eta horrek kolokan jartzen du euren parte hartzea lan merkatuan. Politika ekonomikoak lanaren banaketa sexual hori islatzen du, lan ordainduari, aberastasun materiala sortzeari eta enpresa handiei errepartzeko dielako, eta balio gehiago ematen dielako. Bien bitartean, gero eta zailagoa den denboraren kudeaketa egin behar dugu eta gure eguneroko bizitza guztiz baldintzatzen du.

Administrazio publikoen barruan, politika publikoen neutraltasunaren ideia oso zabaldua dago?

Politika publikoen neutraltasunaren gaia berdintasunaren mitoarekin lotuta dago. Bilakaera natural batean denboran zehar egoera bidezkoago baterantz joaten garela uste da. Hala ere, errealitateak erakusten digu erresistentzia eta atzera egiteko arrisku asko daudela. Horrez gain, ohituta gaude datu estatistikoak batezbestekoen bidez behatzera eta, gizatalde desberdinen barruan dauden aukera desberdintasunak eta ezberdintasun ekonomiko eta sozialak ezkutatzen dizkigu. Horrexegatik da hain garrantzitsua intersektionalitatea estatistiketan sartzea, batezbestekoetatik haratago joatea, eta bizimodu zaila eta prekarizatua duten kolektiboak begiratzea, izan ere, haien artean familia zamak dituzten emakume asko baitaude.

Genero ikuspegiko aurrekontuetan intersektionalitatea lantzen da?

Alderdi teorikoan sartzen ari da baina praktikan kostatzen da.

Horixe da erronka handienetako bat. Aurrekontuak genero ikuspegitik aztertze-ko beharrezkoa da politika horien eragina izango duten kolektiboetan dauden desberdintasunei buruzko diagnostiko batzuk egitea. Hori ezinbestekoa da hartu behar diren neurriak eta politikak erabaki aurretik aztertzea. Orain arte datuak emakumeen eta gizonen artean sailkatu dira eta, askoz jota, adinarekin gurutzatu dira. Ikusi da beharrezkoa dela identitatea osatzen duten beste dimentsio batzuk azterketan sartzea, izan ere, gaur egun datu estatistikoek ez digute uzten gure bizitzetan eragina duten aldagai garrantzitsu guztiak gurutzatzea.

Zer nolako eragina dute gizarte mugimenduek aurrekontu publikoetan?

Gizartearen parte-hartzea funtsezkoa da aurrekontuak osatzeko baina oraindik arlo horretan lan asko dago egiteko. Normalean, politika erabakitzen dutenek ez dituzte zuzenean kontuan hartzen mugimendu sozialetatik, esate baterako mugimendu feministatik, egiten diren azterketak, es-

kaerak eta diagnostikoak. Azken hamarkadetan mugimendu feministak oso sakon aztertu ditu krisietako giltzarriak eta bizitzak erdigunean jartzearen garrantzia. Administrazio publikoak lan gehiago egin behar du gizarte zibil antolatuekin, gizatalde desberdinen beharrei nola erantzun jakiteko.

Zer erronka ditu EAEak genero ikuspegiko aurrekontuen gaian?

Erronka nagusia da zaintza lanen ekonomia politika publikoaren erdigunean nola jartzen dugun aztertzea, zaintza lanak ikuspuntu zabal batetik ulertuta. Hau da, bizikalitatearen alderdi guztiak bildu behar ditu: osasuna, hezkuntza, enplegua, gizarte zerbitzuak, eta kultura, ingurumen, etxebizitza eta mugikortasun politikak besteak beste. Politika publiko osoa zaintza lanen ikuspegitik aztertu behar da, giza bizitza, gizartea eta ingurumen zainketa kontuan hartuz. Desberdintasunei aurre egin behar diegu baina, batez ere, giza bizitzaren eta planetaren erritmoei egokitu den bizitzeko era berri baten oinarriak jarri behar ditugu.

